Cristinos haitzuloko lurpeko aintzira (Urbasa, Nafarroa)
ARG.: José Luis González

Argazkiak: **ILUNPE Art**

Lurpeko edertasuna **argitara**

Macaroniren galeria, Coventosako haitzuloan (Kantabria)
ARG.: Iñigo Gómez de Segura

Lurpea dute pasio. Urak sortutako bideetan barrena lur azpian sartu, eta han aurkitzen duten edertasuna kameraz jasotzen dute ILUNPE Art taldeko zazpi argazkilari gasteiztarrek. Kobazuloak maite dituztela diote, lurpean aurkitzen dituzten pasaia martetarrak, ez baitago uraren pazientzia duen beste arkitektorik Lurrean.

"Egoera basatian mantentzen diren kobazuloetara joaten gara —dio Iñigo Gómez de Segura ILUNPE Art-eko kideak—.100 km-ko galeriak dituzten kobazuloetan egon izan gara. Iluntasuna erabatekoa da han, hezetasuna % 97koa, eta orduak behar izaten ditugu interesatzen zaigun aretoraino iristeko". Putzuak gainditu behar izaten dituzte, aingurale-kuak antolatu eta sakontasun handietara jaitsi... Kanpoan euria egiten hasten bada, gora egin dezake kobazuloko ibaiak, eta haiek harrapatuta geratu. "Baldintza zailetan egiten dugu lan".

Pisolitak, haitzuloetako perlak (Kantabria)
ARG.: José Luis González

"Aretora iritsi, eta argi-eskema antolatzen hasten gara. 15-18 flash inguru jartzen ditugu, aretoko leku estrategikoetan kokatuta. Ez da erraza argi-eskema antolatzea; kontrako eta aldeko argiak ondo jarrita bakarrik lortzen da argi eta beltzen arteko elkarrizketa hori sortzea eta aretoaren hiru dimentsioko izaera erakustea".

Orrazi-itxurako espeleotemak, Lavallinako haitzuloan (Asturias)
ARG.: José Luis González

Aragonitozko egiturak,
Udias meatze-gunean (Kantabria)
ARG.: Iñigo Gómez de Segura

"Kobazuloetan aurkitzen ditugun espeleotema eszentrikoak dira ederrenak niretzat. Urak sortzen ditu espeleotemak, baina grabitate-indarrari aurre egiten diote eszentrikoek, eta nahi duten tokirantz hazten dira. Galdames inguruko meategietan aurkitu ditugu bereziki ederrak", dio Gómez de Segurak.

Lore-itxurako espeleotema,
Lazaldaiko haitzuloan (Zuia, Araba)
ARG.: Iñigo Gómez de Segura

Salamandra salamandra,
Uraska haitzuloa (Opakua, Araba)
ARG.: José Luis González

Mesotriton alpestris,
Del Paño haitzuloa (Burgos)
ARG.: José Luis González

***Meta menardi* espezieko armiarma.**
Asunkortako haitzuloa (Gorbeia, Araba)
ARG.: Nicolas López de Armentia

***Coprinopsis* espezieko onddoak,**
La Cubillako haitzuloa (Kantabria)
ARG.: Iñigo Gómez de Segura

Bizidunak ere aurkitzen dituzte, kondizio berezi horietan bizitzera moldatu diren animaliak, adibidez. "Duela milaka urte ez ziren kobazuloetan biziko, baina klima aldatu zen, eta animalia hauek kobazuloetan sartu ziren, han hezetasun handiagoa baitzegoen, antzina zituen kondizio hotzen antzekoak. Saguzarrak dira kobazuloetatik ateratzen diren bakarrak; besteek bizitza osoa ematen dute kobazuloan, iluntasunean. Haietako askok, azkenean, begiak eta koloreak galdu dituzte, han ez baitituzte behar".

Ezkarretabaso IV haitzuloa (Entzia mendilerroa, Araba)
ARG.: Iñigo Gómez de Segura

Mairuelegorreta (Gorbeia, Araba)
ARG.: José Cantorna

Ezkarretabaso Torka, Entzian dagoen kobazuloa, oso gustuko du Gómez de Segurak, baina Mairulegorreta haitzuloa maite du bereziki (Gorbeian). "Txikitako oroitzapenak datozkit burura, ezagutu nuen lehenengo kobazuloa izan baitzen. Ikastolatik joaten ginen. 17 km-ko zuloa da, eta hiru pisu ditu: pisu aktibo bat, ibaia bizirik duena, eta bi pisu fosil, espeleotemak dituztenak. Espeleologikoki ederra izateaz gain, oso harreman berezia mantentzen du oraindik ere Zigoitiko jendeak kobazulo honekin".